

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

452/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Miren Josu Ormaetxea Legarreta andrea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko zuzendari izendatzen duena.

Aztertua izan da Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen 2014ko urtarrilaren 31ko 162/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Miren Josu Ormaetxea Legarreta andrea deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Miren Josu Ormaetxea Legarreta andrea Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Pertsonaleko Zuzendari izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 10a.

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**JON ETXEBERRIA CRUZ**